



## EGUBERRI-POSTALEN IV. LEHIAKETA

### Kanpezuko Udala OINARRIAK

#### **1.- PARTEHARTZAILEAK.**

---

Eguberri-postalen lehiaketa honetan edozein pertsonak parte har dezake, hala nahi badu, betiere ondorengo kategoria batean sartzen bada:

- a) Haur kategoria: 7 urte bitartean.
- b) Gazteen kategoria: 8 eta 16 urte bitartean

Lanen gaia Eguberria eta haren jaia izango da, eta egile bakoitzak lan bat baino ezingo du aurkeztu.

Postalaren diseinua eskuz egin beharko da (errotuladorea, argizari-margoak, akuarelak...)

Orijinaltasuna, erabilitako teknika eta balio ez sexista ez diskriminatzaileen defentsa eta estereotipo maskulino eta femenino tradizionalekin haustura balioetsiko dira.

#### **2.- AURKEZPENA**

---

Postalak jasotzeko epea **2015eko abenduaren 5ean** bukatuko da.

Lanek, teknika librean eginda, ezingo dituzte gairak horretarako banatuko den orriaren laukiaren neurriak.

Marrakzi bakoitzean ondorengo datuak adieraziko dira, erantsita doa eskabidea:

Umearen izen-abizenak

Jaiotze-data

Helbidea

Telefono zenbakia.

Lanak norberak postaz edota zuzenean helarazi beharko dizkio Kanpezuko Udalari astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara; ludotekan edota liburutegian, astelehenetik larunbatera, arratsaldez.

“2015 EGUBERRI-POSTALEN LEHIAKETARAKO” adierazi.

#### **3.- SARIAK ETA KATEGORIAK.**

---

Adinaren arabeko kategoriak osatuko dira:

- 7 urte bitarteko kategoria
- 8 eta 16 urte bitarteko kategoria



Aurkeztutako marrazki guztiak Santikurutze Kanpezuko Kultur Etxean egongo dira ikusgai; baita ere horiek zabaltzeko Kanpezuko Udalak erabaki dezakeen beste bideren batez.

Kategoria bakoitzeko sari bana emango da.

Udalak edozein kategorian lehiaketa huts deklaratzeko ahalmena beretzat gordetzen du.

Saritutako postalekin Udaleko Eguberri-postal ofiziala egin daiteke hala nola dibulgazio-material desberdina (egutegiak, orri-banatzailak, etab.)

#### **4.- EPAIA ETA IRABAZLEEI JAKINARAZPENA.**

---

Hautagaiei zuzenean adieraziko zaie irabazi duten emandako telefonoaren bidez.

#### **5.- IRABAZI EZ DUTEN POSTALEN ITZULERA**

---

Urtarrilaren 7tik 11ra haien postalaren itzulera nahi duten guztiak Udaletxetik pasa ahal izango dira hura jasotzera.

#### **6.- DATU PERTSONALEN BABESA.**

---

Parte-hartze formularioaren bidez bildutako datuak tratatuko dira lehiaketaren oinarrien arabera, ez utziz edo komunikatuz hirugarren bati.

Oraingo eskarian jasotako datu pertsonalak interesatuaren baimenarekin jasotzen dira, eta automatizatutako tratamendua izango dute baita Kanpezuko Udalaren Informazio Sistemari gehituko ere. Aipaturiko datuen erabilera udal-kudeaketara murriztuko da, Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan xedatutakoa betez haien lagapena edo komunikazioa beste Administrazio Publiko batzuei edo hirugarrenei egin ahalko da. Erabiltzaileek, datuetara sartu, horiek zuzendu, ezabatu eta baliogabetzeko eskubidea izango dute Hiritarren Arreta Zerbitzuaren bidez (HAZ).

#### **7.- ONARPENA.**

---

Lehiaketa honetan parte-hartzeak lehiaketaren oinarriak eta epaimahaiaren erabaki apelaezina onartzea suposatzen du.

Kanpezuko Udalak eta Epaimahaiak gordetzen dute, oraingo oinarrietan araututa egon gabe ere, lehiaketaren arrakasta handienari laguntzen dion edozein ekimen hartzeko eskubidea; bere erabakien kontra erreklamaziorik ezin izango da aurkeztu.